

Bide Segurtasuneko Ebaluazioko Azterketetan parte-hartzea

Ardatz eragileen gaineko kargako masa %25etik beherakoa duten multzo euromodularren zirkulazioa buruzkoa edota multzoaren maniobragarritasuna buruzkoa bide-segurtasunaren ebaluaziorako azterketa batean borondatez parte hartu nahi duten pertsonak Eusko Jaurlaritzaren Trafiko Zuzendaritzarekin lankidetzan aritzeko konpromisoa hartuko dute, azterketa egiteko orduan; eta honako hauek egin beharko dituzte:

- Erabilitako ibilgailu motordunei, atoei eta erdi-atoei buruz behar den informazio tekniko guztia eman.
- Jarraitutako ibilbideei, bidaia-maiztasunari eta multzoen mugikortasunaren inguruko gainerako datuei buruzko informazioa eman.
- Takografoen datuetarako sarbidea erraztu.
- Ibilgailuetan datuak gordetzeko gailu bat instalatzea erraztu.
- Trafiko Zuzendaritzaren eskura jarri garraioan erabilitako multzoak, proba jakinak egiteko.

Azterketak egiteko bildutako informazio guztia era anonimoan eta xede zientifikoekin erabiliko da. Ezin dira zehapen-prozeduretarako erabili, inola ere.

Berariazko datuak jasotzeko gailuen instalazioa ibilgailuen segurtasuna errespetatuz egingo da, eta Trafiko Zuzendaritzak izango du hori egiteko ardura. Horrek ez dio aparteko kostu ekonomikorik ekarriko interesdunari.